

**2008KO EKAINAREN 5EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bosta

HILABETEA: Ekaina

URTEA: Bi mila eta zortzia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Malu Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Manuela Uranga Segurola
- Ana María Crespo Blanco
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2008ko apirilaren 24ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 7. Sektoreko (7. S) INDAR Arau Subsidiarioen aldaketa puntualarekiko irizpide eta helburuak zehazteko eta hasierako onespena emateko proposamena.

Alkateak, Aitor Aldasoro Hirigintza Batzordeko Lehendakariari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

“HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA

Gaia: INDAR 7. Sektoreko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko irizpide eta helburuak zehaztea eta hasierako onespena ematea.

AURREKARIAK

Ekainaren 30eko 2/2006 Zoru eta Hirigintzaren Legearen 90. artikulua araberan, 7. Sektoreko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko Aurrerakina bi hilabeteko epean jendaurrean jarri zen, GAON, Diario Vascon eta Berrrian 2008ko martxoaren 12an eta 5ean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz, alegazio eta iradokizunak aurkezteko.

Halaber, Beasaingo udalerriarekin muga egiten dituen, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Olaberria, Ordizia eta Ormaiztegiko udaletxeetara ere Aurrerakina bidali zen ezagutu ahal izateko.

Aipatutako Aurrerakinari buruz, txostena eskatu zen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzari eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunea garatzeko departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari eta Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuei.

Alegazio eta iradokizunak aurkezteko epean ez da batere aurkeztu eta informazio eskaerari buruz, bakarrik aipatutako bi entitateen kultura

departamentuak erantzuna eman dute adieraziz ez dagoela kultur arloan inolako elementurik lan horiegatik eragina izango duenik.

Ingurugiro inpaktuari buruzko txostenik ere ez da jaso, baina uztailaren 22ko 18/2003 Dekretuaren 18. artikulua arabera, prozedurarekin jarraitu daiteke lege horretan ezarritako bi hilabeteko epean txostenik eman ez delako.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten dio (apirilaren 2ko 7/1985, Legearen 22,2c) artikulua ematen dio eskuduntza Udalbatza Osoari):

Lehenik. INDAR 7. Sektoreko Arau Subsidiarioen aldaketaren Aurrerakinean ezarritako irizpide eta helburuak onartzea, hasierako onespena emateko dokumentua idazteko.

Bigarren. INDAR 7. Sektoreko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko dokumentuari hasierako onespena ematea eta jendaurrean jartzea, GAOn, Diario Vascon eta Berrian hilabeteko epean, azken hauetan iragarkia argitaratzen denetik kontatuta bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarren. Dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, Gipuzkoako errepide eta bideen azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauaren 94. artikulua aipatzen duen txostena emateko eskatuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengoa adierazi dute:

PP eta EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada (PSE-EE/PSOE): “Nosotros no aprobamos el convenio que se pretendía suscribir con INDAR. No obstante, dijimos que no estábamos en contra del desarrollo urbanístico y en consecuencia de la modificación de las NN SS para que la empresa se pueda ampliar, siempre que se cumplan los plazos legales establecidos. Como quiera que en este caso se cumple lo legalmente establecido, nuestro partido le da el visto bueno, pero lo que queremos conocer es como se encuentra a día de hoy el cobro por parte del Ayuntamiento del aprovechamiento urbanístico.”

Alkate jaunak: “La empresa ha solicitado que el cobro se demore hasta enero de 2009, pero todavía no hemos respondido porque estamos en contacto con el Gobierno Vasco y con Diputación para saber qué medidas van adoptar hasta que la empresa pueda cobrar la indemnización de los seguros.

Queremos tener el mismo criterio que el resto de las Instituciones, pero lo que sabemos es que en enero de 2009 van a pagar.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGAREKIKO HOBARIA.

- San Martin basilizan eta Loinatzko ermitan saneamendu obrak egiteko.

Alkateak, Arantxa Gibelalde Hazienda Batzordeko Lehendakariari hitza eman eta dio eta honek proposamenaren berri eman du:

“HAZIENDA BATZORDEAREN PROPOSAMENA

GAIA: San Martingo parrokian eta Loinazko ermitan egin behar diren konponketa eta saneamendurako obrek sortzen duten Eraikuntzen gaineko Zergari buruzko hobari eskaria. (Expte.: 2008OBME0045).

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuen barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehuneko Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia sozialak betetzen dira eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:

San Martingo parrokian eta Loinazko ermitan egin behar diren konponketa eta saneamendurako obrek sortzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

- La Salle-San Jose ikastetxeko patioa irristakorra ez izateko tratamendua.

Alkateak, Arantxa Gibelalde Hazienda Batzordeko Lehendakariari hitza eman eta dio eta honek proposamenaren berri eman du:

HAZIENDA BATZORDEAREN PROPOSAMENA

GAIA: La Salle-S.José ikastetxearen atariko zoruan, ez irristatzeko tratamendua emateko egin behar diren obrek sortzen duten Eraikuntzen gaineko Zergari buruzko hobari eskaria. (Expte.: 2008OBME0039).

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuek barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehuneko Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia sozialak betetzen dira eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:

La Salle-S.José ikastetxearen atariko zoruan, ez irristatzeko tratamendua emateko egin behar diren obrek sortzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- 2008-2009 IKASTURTERAKO TASAK:

Alkateak, Arantxa Gibelalde Hazienda Batzordeko Lehendakariari hitza eman eta dio eta honek proposamenaren berri eman du, 2008-2009

ikasturterako Euskaltegirako, Loinatz musika eskola publikoa eta Berritxu eta Txelotxe ludoteken tasei buruz.

HAZIENDA BATZORDEAREN PROPOSAMENA

GAIA: Beasaingo Udal Euskaltegian 2008-2009 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespena.

Hazienda Batzordeak 2.008ko ekainaren 2an egindako bileran, Udal Euskaltegiko Gobernu Batzordeak proposatutako eta 2008-2009 ikasturtean Euskaltegiko irakaskuntza zerbitzuengatik aplikagarri izango diren tarifen onespena proposatzen dio Udalbatzari:

Ikastaroak /Cursos	Ordu kop./ Nº Horas	Prezioa materiala barne/ Precio material incluido
Astean 10 orduko ikast. / Curso 10 horas semanales 2008/09/22 - 2009/06/22	332	420 €
Astean 6 orduko ikast. / Curso de 6 horas semanales 2008/09/22 - 2009-06/22	198	258 €
Astean 4 orduko ikast. / Curso de 4 horas semanales 2008/09/22 - 2009-06-23	132	170 €
Etorkinentzako ikastaroa / Curso para emigrantes	60	30 €
Autoikaskuntza tutorearekin/Autoaprend. con tutor 2008/09/22 - 2009/06/22	208	438 €
Udako ikastaroa / Curso de verano 2008/06/29 - 2009/07/24	100	130 €

2008-2009 ikasturtean orduko 1,20 € kobratuko da.

Materiala 20 euro. Udako ikastaroan: 10 euro.

Ikasleek matrikularen kopuruaren erdia ikastaroa hasi baino lehen edo hasi eta lehenengo hamar eskola-egunetan ordaindu beharko dute. Gainerakoa, hurrengo bi hilabeteetako lehenengo astean egin beharko dute. Udako ikastaroetan, ikastaroa hasi eta lehenengo 7 egunetan ordaindu beharko du.

Ikasturte amaierako beka eskatzeko eskubidea izando dute Beasainen erroldatua dauden ikasleek eta dirulaguntza horiek emateko, Udal Ordenantzan jasotakoa aplikatuko da.

Ikasleak HABEtik ere, jaso dezake dirulaguntzarik. Horretarako, euskara mailak egiaztatzeko HABEk deituko dituen azterketak gainditu beharko ditu.

GAIA: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2008-2009 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespena.

Hazienda Batzordeak 2.008ko ekainaren 2an egindako bileran, Beasaingo Loinatz Musika Eskolako Batzorde Errektoreak proposatutako eta 2008-2009 ikasturtean Musika Eskolako irakaskuntza zerbitzuengatik aplikagarri izango diren tarifen onespena proposatzen dio Udalbatzari:

	<u>Urteko kuota/ Cuota anual</u>
MUSIKA TAILERRA TALLER MUSIKAL	167,5 €
HASTAPENA INICIACION	211,00 €
INSTRUM. + M. LENGOAIA II. MAILA INSTRUM. + LENGUAJE MUSICAL NIVEL II	575,00 €
INSTRUM. + GAI TEORIKOA III. MAILA INSTRUM. + MATERIA TEORICA NIVEL III	610,00 €
M. L. + PANDERO EDO + KANT TALD L.M. + PANDERO O + CANTO GRUPAL	425,00 €
M. LENGOAIA LENGUAJE MUSICAL SIN INSTRUMENTO	190,00 €
GAI TEORIKOAK MATERIAS TEORICAS	190,00 €
INFORMATIKA	190,00 €
INSTRUMENTUA II. MAILA	425,00 €

INSTRUMENTUA III. MAILA	447,50 €
TRIKITIXA	367,50 €
PANDEROA	260,00 €
KANTUA TALDEAN CANTO GRUPAL	190,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA PIANO + ACOMPAÑAMIENTO	670,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA + GAI TEORIKOA PIANO + ACOMPAÑAMIENTO + MATERIA TEORICA	800,00 €
BAKARLARI CANTO SOLISTA	447,50 €
IZENEMATEA 09-10 INSCRIPCION 09-09	32,50 €
MATERIALA	7,00 €

- Familia partaide kopuruarengatiko dirulaguntza:

1. partaideak: kuota osoak

2. partaideak: kuota osoak

Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.

- Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.

GAIA: Berritsu eta Txelotxe ludoteken zerbitzuengatik 2008-2009 ikasturtean aplikagarri izango diren tasen onespena.

Hazienda Batzordeak 2.008ko ekainaren 2an egindako bileran, Berritsu eta Txelotxe ludoteken zerbitzuengatik 2008-2009 ikasturtean aplikagarri izando diren, Euskara Batzordeak proposatutako, tarifen onespena proposatzen dio Udalbatzari:

Zerbitzua irailetik ekainera emango da eta dagokion tasa 60 eurokoa izango da.

2009ko urtarrilean matrikulaldia irekiko balitz, zerbitzuaren erabiltzaile berriek ordaindu beharreko tasa 30 eurokoa izango da.

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak sustatutako eskuhartze programetako partaide diren adin txikiko eta gazteei ludotekako tasa subentzionatuko zaie.”

Jarraian Arantxa Gibelalde andreak (EAJ) azaldu du: “Tanto para el euskaltegi como para la musika eskola la subida es del 4,2, IPC interanual al mes de abril de 2008. En el caso de la ludoteca la subida supone alrededor del 15%, pero se ha considerado que hay que adecuar la tasa teniendo en cuenta el servicio que se presta.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

5.- MOZIOAK:

Alkatea jaunak, Andoni Antxia, EAeko ordezkariari hitza eman dio mozioak irakurri ditzan. Mozioak honela dio:

a.- “Euskal Herrian demokrazia zero” EAeko mozia Alkateak aurkezten duena.

EUSKAL HERRIAN DEMOKRAZIA ZERO !!!!!

Herriarena da erabakia, eta herriarena zilegitasuna, guztia eta bakarra. Hori izan behar da demokraziaren oinarria baita edozein erakundeena ere. 2007ko udal hauteskundeak ez ziren baldintza demokratikoetan garatu, ez zen aukera berdintasunik izan. Espainiar Estatuak Alderdi Politikoen legearen bidez aukeratua izan eta aukeratzeko eskubidea urratu zuen Euskal Herrian. Demokraziaren aurkakoa den lege horren gaineratik herritarrak bere borondatea agertu zuten, bere ordezkariak aukeratu zituzten. Batzuk legezko aitortza izan

zuten, beste batzuk ukatua. Baina udal ordezkari egiten gaituena ez da legea, herritarren borondatea baizik. Eta hori da errespetatu beharrekoa, herritarren borondatea.

Euskal Herriak bizi duen egoera ez da demokrazia zkoa, ez da bake egoera bat. Euskal Herriak gatazka nozitzen du, azken hilabete hauetan gordindu den gatazka. Euskal Herriari nazio izaera ukatzen zaio, herri bezala dagozkion eskubideak ukatzen zaizkio, herritar bezala dagozkigunak ere. Espainiar eta frantziar estatuek euskal herritarro beren legediak ezartzen dizkigute, gure borondatearen gainetik. Ikuspegiak anitzak izan daitezke eta behar dute izan, baina gatazkaren muinean bada ukaezina den errealitatea, euskal herritarrok ukatua dugu, egun, gure etorkizuna libreki eta demokratikoki aukera guztien artean erabakitzeko eskubidea. Egoera horren isla zuzena pairatzen dugu udalean, herriaren borondatearen gainetik ezartzen delako espainiar Alderdi Politikoen legea, hautetsi batzuei izaera bera ukatuz, beste batzuen eguneroko jardura bertan behera edo legez kanpo utzita. Demokrazia faltan du gatazka sorburua, eta demokratikoa izan beharko da konponbidea.

Bizi dugun egoera gordinaren aurrean, herritarren ordezkari garenok arduraz jokatu behar dugu. Ezin dugu gatazka ukatu, ukatzeak ez duelako gatazka konpontzen, ezin dugu gatazkaren sorburua ukatu, konponbideak gatazkaren muinera joatea eskatzen digulako, eta ezin ditugu gatazkaren ondorioak ukatu, gatazka eta ondorio guztiak gainditzea izan behar dugulako helburu. Arduraz jokatu behar dugu, behingoz eta betirako gatazkari konponbide bat ematea delako, herriaren aurrean, gure ardura nagusia.

Ardura eta zintzotasuna da herriari zor dioguna, ez ditugu arazo konponbideari mesede eskasa egiten dizkioten alde bakarreko irakurketak behar. Ez ditugu oportunistatik abiatu eta alderdien interesak ase besterik helburu ez dituzten neurriak behar. Udal jardueran inolako oinarria izan ez eta alderdikieriaz erabiltzen diren Zentsura Mozioak ez ditugu behar, ez dira zilegiak, herritik kanpo erabakiak eta herriaren borondatearen aurka aurkeztuak direlako, alderdi batzuk herritarrek eman ez dieten boterea eskuratzeko erabili nahi dituztelako. Urteetan ezarri eta porrota eta sufrimendua besterik ekarri ez dituzten neurri errepresiboak alboratu behar dira, gatazkaren muinetara jo eta ariketa demokratiko bat egin behar dugu, herritarren esku utzi etorkizuna, aukera guztien artean erabakitzeko eskubidea.

Herri honek ezin du permititu orain 30 urte gertatutakoa errepikatzea, eta gu, nahi duten guztiekin batera, benetako aldaketa politikoa eman dadin baldintzak sortzeko lan egingo dugu.

Arduraz, zintzotasunez, herriari arazoak konpontzeko alternatibak eskaintzea baldin bada gure udal jardueraren oinarria azaldu dezagun bada herri honek bizi duen arazorik larrienari konponbidea emateko konpromisoa eta ausardia.

Hau guztia kontutan hartuta, honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:

1.- Udal honek, herritar oro eskubide zibil eta politiko guztien subjektu dela aldarrikatzen du. Era berean, Euskal Herritar orori dagokigu gure herriaren etorkizuna erabakitzea.

2.- Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest. Hala udal hauteskundeetan jazarpena jasan zuten zerrendetako kide, nola suspentsioaren ondorioz eragina jasan dutenak. Hortaz, herritarrek aukeraturiko EAE-ANVko zinegotziak, eragile eta mintzakide politikoak gisa onartzen ditu.

3.- Udal honek, alkate eta zinegotzien aurkako jazarpen judiziala – zitazioak, Ino Galparsoro Arrasateko alkatesaren espetxeratzea,...- salatzen du.

4.- Udal honek herriari aitortzen dio zilegitasun guztia eta bakarra. Hortaz, udal honek, 2007ko maiatzaren 27an, lege arrotz eta neurri errepresiboen gainetik, herriak aukeraturiko ordezkari guztien aitortza exijitzen du, udalerrri guztietan herritarren borondatea errespetatua izan dadin.

5.- Udal honek 5/1985 LOREG aren 182.artikuluan jasotzen den formula aplikatuko du, herritarrek aukeraturiko zinegotziek eskubide osoz kargua bereganatu dezaten. Hortaz, eta 2007ko maiatzaren 27an ospatu ziren udal hauteskundeetan BEASAIN-go herritar guztien bozak kontutan hartuta, Arantxa Aseginolaza (EAJ), J. I. Insausti (EA) eta Ana M^a Crespo (PSE)-ren dimisioa eskatzen dugu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak: “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak(EAJ): “ Me hago responsable.”

Alkateak ondorengo aurkako mozioa aurkeztu du:

“EUSKAL HERRIAN DEMOKRAZIA ZERO, MOZIOAREN AURREAN

1. Bizi dugun etengabeko eskubideen zapalkuntza ez zaio, inolaz ere, gure herriak behar eta desio duen soluzio bilaketari lagungarri. Soluzioa baitator, batetik, eskubide ororen zapalkuntza baztertzetik eta bestetik, gure herriak bizi duen gatazka politikoa soluzio bidean jarriko duen akordio politikoaren bilaketatik, Herri honi berezkoa zaion erabakitze eskubidea oinarri duela.
2. Erakunde politikoaren aurkako lege kanporatze prozesuek, askatasun ideologikoa, adierazpen askatasuna, elkartzeko askatasuna eta hiritarren partehartzea bezalakoei -guztiak funtsezko eskubide- eragiten diete zuzen zuzenean; halaber, gure Herriko elkarbizitzari, eta gure gizarteak desio duen normalizazio politikoetik urruntze gaituzte oso.
3. Udal honek garbi dauka, eta horrela adierazi du behin baino gehiagotan, herri honetako ordezkari bat legez kanpo ipintzeko “ad hoc” egina dagoen Alderdi Politikoen Legea, hala

nola zentzu berdinean bultzatu diren beste zenbait lege aldaketak, espainiar Estatuak euskal arazoaren inguruan diseinatu eta ezarri duen estrategia orokorraren zati direla. Baina ezin ahaztu daiteke, strategi horretan jarraitzeko ETA erakundea indarkeriazko ekintzak burutzen behar duela, bide batez eta ondorioz ezker abertzale politikoari bide politikoak galerazteko.

4. Jakin badakigu, Alderdi Politikoen legea aplikatzen duen Auzitegi Gorenaren epaiak zer dioten LOREGaren 182.2 artikulua aplikazioari buruz. Alegia, akordio baten ondorioz aplikatu ezker, lege iruzurtzat hartua izango litzatekeela. Beasaingo Udalak ez du emango legearen urraketa ekarriko duen urratsik. Horretarako arrazoi franko dago, baina guztiak baten inguruan laburbil daitezke: Urrats horiek espainiar Gobernuari bidea erraztuko lioketela orain arteko estrategian haratago joateko
5. Giza eskubide guztien aldeko apustua egiten dugulako, Alderdi Politikoen legeak sortarazi dituen ondorioei aurre egiteko gure prestutasuna adierazten dugu berriro ere. Horretarako bideak daudelakoan gaude, baina beti errespetutik abiatuta.
6. Udal honetan gauden zinegotzi guztiok osatzen ditugun udal talde ezberdinak, eta baita Arantxa, Josi nahiz Anak ere, talde gisa hartzen ditugu geure erabakiak. Beraz, erabaki ororen ardura guztiona da. Ez dugu onartzen gure zinegotzi batzuegan ardura zehatzak egotzi nahi izate hori. Are gutxiago helburua jendea mehatxupean jartzea denean.”

Aurkako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ, EA, EB)
Aurkako botoak: 6 (PSE-EE/PSOE, PP)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aurkako mozioa gehiengo soilarekin onartu da.

Arantxa Aseginolaza andreak batzarraldia utzi du.

b.- 33/01 epaiari buruzko EAEko mozioa Alkateak aurkezten duena.

33/01, amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean adierazi nahi dugu:

Dispertsioa salatzea ez da delitua. Preso politikoaren kolektiboaren kontra hamarkadatan ezarri den eta ezartzen den dispertsio eta muturreko neurriek osatzen duten salbuespen egoera da delitua.

Tortura salatzea ez da delitua. Torturatzea eta tortura ahalbidetzen duen tresneria hori guztia da delitua; salbuespeneko tribunalak, inkomunikazio legea eta funtsean torturatzeko eraikia den inpunitate esparrua bera da delitua.

Errepresioa salatzea eta pertsonen eskubideak babestea ez da delitua. Estatuaren biolentzia eta eskubide urraketa dira delituak.

Elkartasuna ez da delitua. Presoak eta euskal herrian errepresioa jasaten duten milaka emakume eta gizon babes eta elkartasunik gabe uzteko mugimenduen kontrako kriminalizazio eta erasoak dira delitua.

Preso, iheslari eta beren senitartekoak lagundu eta babestea ez da delitua. Kolektibo hauek hondoratzeko eta zatitzeko helburuarekin burutzen diren jazarpen, eraso eta eskubide urraketa horiek guztiak dira delitua.

Auzipetu dutena eta epaitu nahi dutena Estatuaren biolentzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztiekiko elkartasuna da. Frantziako eta Espainiako estatuak euskal gizartearen eta munduaren aurrean biluzten dituen eta beren izaera ez demokratikoa begi bistako egiten duen testigu nagusia erditik kendu nahi dutelako.

Honenbestez, udal honek ondorengo eskakizun eta konpromisoak zehazten ditu:

- elkartasun eta babesa luzatzen diegu amnistiaren aldeko mugimenduko 27 auziperatu eta mugimendu honetako militante guztiei
- auzi honek dakartzan galera ekonomikoei aurre egiteko (bere momentuan erabakiko litzateke) euroko diru laguntza emango diegu.
- Kriminalizatu nahi den amnistiaren aldeko mugimenduak bere lanean jarraitzeko duen zilegitasuna aldarrikatzen dugu Espainiako estatuaren eta sistema judizialaren aurrean eta bere lan sozial eta politikoa jarraitzeko ezartzen ari zaizkien trabak gainditzeko exigentzia luzatzen dugu. Auzi honen amaierarekin batera, debeku eta kriminalizazio ekintzak amaitzea.
- Eskubide zibil eta politikoaren urraketa, tortura eta euskal herritarren kontrako errepresio bidegabearen zerrenda amaigabea ahalbidetzen duen auzitegi nazionalaren desagertzea aldarrikatzen dugu.”

Alkateak ondorengo aurkako mozioa aurkeztu du:

“33/01, AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN AURKAKO AUZIA.

33/01, amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean, EAJ/PNV, EA eta EBko udal taldeak, udalbatzari urrengo kontramozioa aurkezten dio, bertan eztabaida eta onar dezan:

MOZIOA

1.- Udal honek, norbanako giza eskubide guztien aldeko jarrera irmoa adierazten du. Printzipio humanitarioekin zein gizakien eskubide eta askatasunarekin duen konpromisoa.

2.- Euskal presoak jasaten ari diren dispertsio, urruntze eta inkomunikazioa da eurei eta euren familiei kartzela politikak ezartzen dien zigor gehigarririk handiena.

3.- Guzti hau salatzeak eraman ditu 27 euskal hiritarrak auziperatuak izatera. ETA erakundearen parte izatearen edo laguntza eskaintzearen akusaziopean.

4.- Bere garaian, diseinu eta bultzada politikoaren eskutik, “dena ETA da” tesiaren aldeko apustua eginez epaitegietan jantzi judiziala eman nahi izatea salatzen dugu.

5.- Gatazkaren humanizazioaren eta berradiskidetzearen aldeko konpromisoa dugunok, herri honetan giza eskubideen etengabeko urraketa guztiak salatzea exijitzen dugu.

6.- Bizi dugun egoera politiko honetan, auzi hau ere bake eta normalizaziorako oztopoa bilakatzen ari da. Irekitako kausa penaletan zuzeneko erantzukizun eta eskumena duten Estatuko instituzioei amaiera eman diezaietela jazarpen politiko eta judizialeko prozesu honi eskatzen dugu.”

Aurkako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, EA, EB)
Aurkako botoak: 6 (PSE-EE/PSOE, PP)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aurkako mozioa gehiengo soilarekin onartu da.

6.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2008ko apirilaren 22tik ekainaren 2ra arte Alkateak emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2008ko apirilaren 22tik ekainaren 2ra arte Alkateak emandako ebazpenak.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen artean honelakoak aurkeztu dira:

INUNDACIONES

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Ayer leía en la crónica local como el teniente de alcalde, se justificaba, seguramente con razón, por el reconocimiento de su no presencia el día de las inundaciones en la portería. Nosotros no vamos a valorar si es o no relevante que esté o no, ya que lo relevante de estas cosas es cómo se gestionan. La pregunta es si el Ayuntamiento sabe cuantas personas han resultado afectadas por las lluvias, y si se ha puesto algún medio para aconsejar y dirigir a estas personas afectadas. Esto si que creemos que es relevante.”

Alkate jaunak: “Respecto a si estuvo o no, estuvo. Yo me encontraba en Austria con otros representantes de GOIEKI, en un intercambio de la Agenda 21. A mi me llamaron a las dos y media, y en seguida la policía municipal, Aitor, el aparejador y el jefe de servicios se pusieron en marcha e intentaron localizar los focos de inundaciones porque se anunciaba que el tiempo iba a empeorar. Trabajaron denodadamente y a las ocho o nueve de la mañana, las calles principales, se encontraban en óptimas condiciones.

Los más afectados fueron los de la calle Ezkiaga. Llamaron a los bomberos y a las nueve de la noche estuve con los vecinos y nos citamos para la mañana siguiente y pudimos informar a los administradores de los pasos que tenían que dar. Nos pusimos a su disposición para poder facilitarles nuestros medios cuando ellos lo estimaran oportuno, ya que previamente tenían que sacar los coches de los garajes y eso dependía de la actuación de cada compañía aseguradora.

Ayer llegó una notificación expresa de la delegación del gobierno sobre ayudas para este tipo de situaciones, y también les transmitimos esa información. Mañana nos han citado en Diputación con el Consorcio de Seguros para valorar los daños. También nosotros tendremos que tomar

alguna medida y preveo que va a ser la de eximir del impuesto de circulación a las personas cuyos vehículos se han visto afectados por el siniestro.

También hay una reunión sobre este tema en EUDEL.

En todo caso estamos en permanente relación con los afectados para colaborar en las labores de limpieza.”

UHOLDEAK

EAEko ordezkariak galdetu ea zergatik ibaiak gainezka egin duen.

Alkatea jaunak (EAJ): “nik hori ez dakit eta ez dut uste hemen norbait egongo denik hori dakienik. Euri asko bota zuen, baina Arriaran-en uhateak ez ziren ireki, bestela pentsa zer gartatuko zen.

EAEko ordezkariak: komenigarria litzateke jakitea zein den arrazoia, neurriak hartu ahal izateko.

Eta tratatzeko gairik ezean, bilera goizeko bederatziak eta berrogeian amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.